

Irakeko Kurdistan

Kandilen, zer

PKKk dozenaka soldadu hil eta gero, Turkiak eskala handiko operazio militarra hasi du berriki. Kandil mendiak dira jomuga, Irak iparraldeko kontrabandista eta gerlari kurduen aterpea; jada bonbardaketa ugari jasaten ari den eskualdea.

Argazkiak eta testua:

KARLOS ZURUTUZA




TXABOLA TXIKI BAT baino ez dago Kurdistan-go Gobernu zentralaren azken *checkpoint*-ean. Bertako soldadu bakartiak apenas erreparatu die autoan doazen bidaiariei, eta harresia altxa du segidan, bere kalashnikov fusila sorbaldan zintzilikatu ostean. Harritzekoa da, oso urriak baitira honaino igotzen diren autoak. Gainera, ibilgailuen barruan, atzerriko kazetariak edo kontrabandistak egon litezke, bai eta PKKko kideak, arma trafikanteak, CIAko agenteak... Egia da, gutxi dira Kandilera igotzen direnak, baina oso anitzak euren arrazoiak.

Soldadu “axolagabe” haren txabolatik gora, Turkiako PKK eta Irango PJAK talde kurduen kontrolpeko eskualdea hasten da. Seinalerik ez, harrizko magaletan ageri diren orban beltz eta erraldoiak ditugu horren adierazle garbiak. Iranek jaurtitako koheteen arrastoak dira, *katyushen* sinadura itsusia. Iparralderago, turkiarrenak ere erraz bereiz daitezke hori koloreko mendiotan.

Turkia, Iran eta Irakeko mugek Kandil mendietan egiten dute topo. PKK (Kurdistango Langileen Alderdia) eta PJAK (Kurdistango Bizitza Askerako Alderdia) talde armatuek hemendik egi-

uaren beldur



ten dituzte euren operazioak, Turkiak eta Iranek okupatutako eskualde kurduetan. Eta ez omen da borroka armatua euren betekizun bakarra.

– *Peshmergek* (gerlari kurduak) asko laguntzen diete hemengo herritarrei –dio Najiba Muhamedek, honaino ekarri nauen PKKko kontaktuak.

– Terrorista islamiarrengandik babesteaz gain, hainbat herritan 24 orduko argindarra daukate, generadore handi bati esker.

Paradoxa galanta badirudi ere, Kandil herria da, Bagdadeko gunen berdearekin batera,

Iraken argindarra egun osoz duen toki gutxienerako bat.

Najiba 23 urteko emakume kazetaria da eta, besteak beste, PKKren nahiz PJAKren prentsa arduradun lanak egiten ditu. Gerlariak eraso bat jasan edo egiten duten bakoitzean, berari jakinarazten diote, egunkariak gero albistea argitara dezan. PKK talde armatua terroristatzat hartzen da nazioartean, baina ez da horrela gertatzen Irakeko Kurdistanen. Najiba bezalako kazetari gehiago dago, baita PKKko bulego bat ere, Jerraba izeneko herrian, hain justu.



Gauza jakina da PKKren adar gisa sortu zela PJAK, 2004an, Irango Kurdistanen operazioak gauzatzeko. Turkiak askotan salatu du AEBek sostengua eman izana irandar talde kurduari. Ankararen aburuz, “CIAk emandako armamentua erraz eror liteke PKKren eskuetan”. Baliteke, ayatolen gobernuaren kontra borrokatzen duen PJAK ez baitago “nazioarteko talde terroristen zerrenda” horretan eta beraz, “legezkoa” litzateke Washingtonek *peshmergei* eskainitako babes. Dirudienez, ez da armeniarren genozidioaren onarpena amerikarrekin haserre egoteko arrazoi bakarra Ankararentzat. Azken finean, antzeko eran lagundu zieten AEBek Irakeko kurduei, edo Afganistanen sobietarren kontra borrokatu zuen Al Kaedari, besteak beste.

Gasolinaren karabana

Iranek bonbardatutako azken herriak Zeuka du izena. Hemen, *peshmergea* ugari badago ere, oso urruti gelditzen da propaganda aparatua.

– Ez dugu ezer gerlarien kontra, baina eurek eragin dute egoera hau –18 urteko Muhamed Zale-ren hitzak dira hauek, Zeuka herritik ihes egin duenetako bat. Zorionez, *katyushak* ez dira oso arma zehatzak, eta bere etxeak zutik dirau oraindik–. Koheteak entzun bezain laster, kanpin dendak hartu eta ospa egiten dugu karretera alderantz. Han itxaroten dugu eraso bukatu arte. PKKkoak, aldiz, gure herrian babesten dira bonbetatik. Ez dut ulertzen –dio Muhamedek–. Gerlariak hemen ez baleude ez zen horrelakorik gertatuko, lasaiago biziko ginatke. Ospa egin beharko lukete denek.

Kanpoan bi egun eman ondoren, Muhamed eta bere familia Zeukara bueltatu ziren. Beste batzuek, ordea, egunak eman dituzte kanpin dendetan bizitzeko, erasoak berpiztuko diren beldur. Sendi horiek sutzarretan prestatutakoa jan eta erreka zikinetako ura edaten dute. Higiene eza dela eta, ohikoak dira diarrea

Goiko argazkian, Zeuka herria (geziak adierazia) eta irandar koheteen arrasto beltza ezkerrean.

Turkiak askotan salatu du AEBek PJAKri sostengua eman izana. Ankararen aburuz, “CIAk emandako armamentua erraz eror liteke PKKren eskuetan”

kasuak, sintoma benetan kezagarria, kolerak berriki zigortu duen eskualde honetan.

Muhameden herri ttipitik Jeneh herrira apenas dira bost kilometro. Baina 5.000 metroko distantzia ikaragarria gerta daiteke Kandilen, arroka eta amildegien gainetik, eta igaroezina lur edo elur jausiak oztopo. Airetik, ordea, Zeukara bezain erraz iristen dira irandar koheteak. Gu iritsi baino astebete lehenago, bertako ismaildarrek ere errepiderantz jo zuten. Gaua kanpoan pasa eta gero, hondakinak baino ez zituzten aurkitu euren etxea zegoen eremuan.

Orain bizilagunen etxean bizi dira; albokoak aspaldi joan ziren eta ez dira bueltatu oraindik.

– Bonbardaketek gau eta egun irauten dute, ez dago jakiterik noiz hasi edo noiz bukatuko diren –kexu da ismaildarren aita Ali–. Hori nahikoa ez eta Iranek muga itxi du. Nola ekarriko dugu gasolina orain?

Arazo benetan larria da hau, ismaildarrak eta Jenehko gainontzeko 150 sendiak gasolinaren kontrabandoari esker bizi baitira. Ikusi besterik ez dago herriko “mando per capita”, bai eta herrian zehar, nonahi, sakabanatuta dauden plastikozko bidioiak. Ehunka ontzi daude pilatuta karretera alboan; mandoak bezala, Iranerako hurrengo bidaiaren zain.

Muhamed Zale eta bere bi arrebak Zeuka herrian.



Eta, dirudienez, aurki izango da; ez dirudi erregairen emaria eten denik hemen. Mendikate handia da hau eta badaude, jakina, muga ofiziala zeharkatzen ez duten beste bide batzuk ere. Ohi-koa baino luzeagoak dira, eta askoz ere arrisku-
tsuagoak. Igarobide “legalak” irekita iraun bitar-
tean, 5.000 bat mandok zeharkatzen omen zuen
egunero Iran eta Irak arteko mendibidea. Orain,
ordea, askoz ere gutxiago dira, eta ez da harritze-
koa. Irango soldaduen patruilaz gain, milaka,
ehun milaka mina daude lur azpian ezkutaturik.
Zortzi urte iraun zuen Iran eta Irak arteko gerra-
ren ondorioz, Saddam Hussein-ek lehergailuz
josi zituen bailara hauek, eta antzera egin zuen
Jomeinik beste aldean. Mandoren batek mina
bat zapaltzen badu, gainean doanak agian ez du
zauririk jasoko; betiere berrehun bat litro gasoli-
na ez badaramatza...

Baina gasolina hori da jenehtarren bizitzaren
ardatza. Herritar orok, ume txiki nahiz amona,
laguntzen du mandoak zamatzen, mandoak
husten, mandoak elikatzen... Eta ezin zaie
denbora osoa eskaini animaliei soilik. Zisterna-
kamioi bat iritsi berri da, eta makina bat lagun
behar dira bere “konkorra” betetzeko.

“Mando batek berrehun litro gasolina
garraiatzen baditu, zenbat mando beharko lira-
teke 3.000 litroko bolumena duen kamioi bat
betetzeko?”. Hori kalkula lezakete bertako
umeez matematika eskoletan. Tamalez, ez
dirudi Jenehko haurrek horretarako astirik
dutenik; ikasgelan ez, behintzat.

Ondo atondu eta gero, animaliek bide
beretik egiten dute joan-etorria, elkarren
aurrian “desfilatzen” duten bi taldetan: Ira-
nerantz doazenak, arin, zamarik gabe; Jeneh-
rantz datozenak, aldiz, motel, buru-makur,
Pertsiatik ekarritako “altxorra”ren pisuari
nekez eusten diotela. Herrira iritsi aurretik,
animaliek deskantsatzeko parada txiki bat
dute. Izan ere, karabanaren gidariak –askotan
ume bat– tratu bat egin behar izaten du
PJAKko *peshmerge*ekin: 15.000 iraniar rial
(1,1 euro) zamatutako mando bakoitzeko.
Horixe egungo tasa.



NAJIBA MUHAMMED



Goitik behera: ismaildarrak euren bizilagunen etxean;
mando karabana Jenehtik ateratzen, Irango mugarantz;
eta PJAKko gerlaria bidesaria kobratzen.



ARGITALETXEAREN AZKEN ARGITALPENAK





FTI - Antzerkiola Imaginarioaren liburuak

8 Olivetti poetiko - Mundopolski, erreboltaren ziaboga
Yuri Sam. Otoitza - Au Revoir triunfadoreak

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com eskura ditzakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com

“Turkia aitzakiaren bila dabil beti, Irakeko Kurdistanen sartzeko”

Turkiak Irakeko Kurdistan inbaditzeko mehatxu egin berri duela, Najiba Muhameden iritzia dugu mugaren “beste aldetik” iristen den ahots bakarrenetako bat.

Zertan datza zure lana?

PKK edo PJAK talde armatuek operazio bat egin edo eraso bat jasanez gero, telefonoz jakinarazten didate. Horren albistea idazten dut gero, eta *Awene* egunkariari bidaltzen diot. *Peshmergen* berri ez ezik, Kandilen bizi diren herritarrena ere ematen dut. Horrez gain, Institute for War and Peace (Gerra eta Bakerako Institutua) Londresko erakunderako egiten dut lan.

Arazorik izan al duzu lan hau dela eta?

Bat ere ez. Irakeko Kurdistanen oso betekizun arrunta da hau, eta egunkari bakoitzak ardura bereko langile bat du nominapean.

Turkiak Kurdistanango Gobernuari leporatzen dio PKKri babesa ematea, baina KDP nahiz PUK alderdi nagusiek ukatu egiten dute. Zein dago oker?

Irakeko kurduak, orobat, askatasunaren alde borrokatzen duten gerlarizat hartzen dituzte PKKko eta PJAKko kideak. Irakeko Kurdistanango Gobernuak badaki, zehatz-mehatz, non dauden PKKren kanpamentuak eta non ezkututzen diren gerlariak. Horretaz gain, badaude PKKk eta PJAKk soilik kontrolaturiko eskualdeak, hots, Kandil mendiak. Gobernuak ez dio PKKri babes ekonomiko edo militarrik ematen, eta askotan eskatu diete gerlariak borroka armatua uzteko, Turkia eta Iran bizilagunekin arazoak saihestearren.



Zein da PKKko gerlari baten profila?

Gehienak Turkiako kurduak dira, baina Siriako jende asko ere badago. Irandik datozenak PJAKera bideratzen dira. Bestalde, badaude Europan jaio eta hazi ondoren *peshmerga* sartu direnak. Horietako askok unibertsitate ikasketak dauzkate. Helburu bera dute denek: berdintasuna eta Kurdistanango independentzia.

Hortik emakumeen parte-hartzea mugimenduan, ezta?

Halaxe da. Gerlarien erdia emakumeak dira eta gizonen eskubide eta betebeharrak berberak dituzte. Sexuaren arabera kanpamentu desberdinak daude.

Zergatik banaketa hori?

Borrokatik desbideratzea eragin dezakeen edozein faktore saihestu nahi da. Diziiplina handia dago PKKn, hori da euren arrakastaren sekretua.

Baina, gauza izango al dira *peshmergak* turkiar inbasioari aurre egiteko?

Ez litzateke lehenbiziko aldia izango, ezta azkena ere. Ankarak urteak daramatza Irak iparreko mendiak bonbardatzen, eta makina bat sartu-irten bideratu ditu dagoeneko, oso emaitza apalekin beti. Turkia aitzakiaren bila dabil beti Irakeko Kurdistanen sartzeko. Dena den, ingurua primeran ezagutzen duten milaka *peshmerga* daude gure mendietan horien kontra; ezer gutxi egin dezakete turkiar erretuta xumeek.

“Jainkoaren etsaiak”

– Kontrabando bide hau kontrolatzeko gaude hemen, terrorista islamiarrek bide bera erabil ez dezaten –dio kamuflajez jantzitako gerlariak, gure etorreraren berri *walkie talkie* eman eta gero. 23 urteko gaztea da baina 7 eman ditu jada mendian *peshmerga*. Poliki hitz egiten du, erantzunak ondo hautatuko balitu bezala. Itzultzaile lanetan ari den Najibak, *peshmerga*ren erritmo geldoaren beste arrazoi bat eman dit: Ipar Irango *badinani* dialekto kurduaz ari omen da mutila, Kandileko *soranieratik* nahiko desberdina den mintzairaz. Zorionez, biek ondo ezagutzen dute elkar, eta horrek asko errazten du komunikazioa.

– Bonbardaketak ez dauka gurekin zerikusirik –jarraitu du gerlariak–. Hemen ez bageunde ere, irandarrek erasoekin berdin jarraituko lukete. Ez gara hemendik mugituko, ez Teheranek Irango kurduon giza eskubideak errespetatu arte.

– Koheteak ez dira inoiz arazo bat izan *peshmerga*gentzat –dio Najibak–. Kobazuloetan bizi-rautea da gerlari hauen entrenamenduaren zati garrantzitsuenetako bat. Hilabete oso bat eman behar dute ezkutuan, egunero ordu erdi bat ateratzeko baimena besterik ez dutelarik.

Tarte txiki horretan, jan, edan eta berotzeko adina lortu behar dute.

Peshmergak harrapatu ezinik, gerlariak baino askoz ere errazagoak diren helburuei eusten diete *pasdaranek* (Irango segurtasun indarrak). Adnan Hassanpour eta Abdolvahed Hiva Botimar kazetari kurduak atxilotuta daude joan den urtariletik. Delitua, “estatuaren segurtasunaren kontrako” iritzi artikulua idaztea. Hori nahikoa ez eta *mohareb*-ak ere ba omen dira biak, klerikoen aburuz; “jainkoaren etsaiak” alegia. Nazioarteko presioa nahikoa indartsu izan ezean, urkatu egingo dituzte. Herriko plazetan burutzen dira exekuzioak Iranen, garabi baten laguntzaz.

Hala, luze joko du *peshmerga*ren borroka Kandilen. Bonbardaketek nekez kezkatuko dituzte kobazuloetan ezkututzen hain trebeak diren gerlariak. Iran, Irak eta Turkiako muga honetako herritarrek, ordea, zeruari begira bizi dira aspaldi. Koheteak edozein momentutan eror daitezke, eta erraz har dezake su hain errekorra den lur honek. ■

<http://www.argia.com/kurdistan>

kanalean, Kurdistanera egindako bidaiaren egunerokoa eta argazki bilduma. Baita gasolina kontrabandoaren inguruko ikus-entzunezkoa ere.